

PIARRES XARRITON & PATRI URKIZU

**KOPLARI ZENBAITEN BIZITZAZ
ETA BERTSOEZ OHAR LABUR BATZUK**

ADEMA Gratien, “Zalduby”, “Haranbeltz”, “Hergaray”, “Artzain Beltcha”, “Uxaleguy”, “Oiharrepe”: Senperen sortu (1 828), Hazparnen apez (1854), Bidarrain erretor (1860), Atharratzen erretor (1870), Baionan kalonje (1890-1907). 1853, *Ameriketako bidean*; 1854, *Ohore laborantzari*; 1859, *Zenbat hitzuntzi!*, *Pilotari gaztea*; 1867, *Amatxo, Mehetegiko xak-hurra*; 1869, *Ez du sosak egiten zinezko gizona*; 1871, *Jeus*; 1873, *Bildotxa eta otsoa*, *Belea eta axeria*; 1874, *Bettiri Sanz*; 1876, *Biba Errepublikak!*; 1887, *Beharra eta ahala*; *Mihizlariak*; 1893, *Gauden Eskualdun!*

ALKAIN Juan Jose, (Aia, 1829 - Usurbil): 1886, *Biba San Migel*, *Bizi bedi Jesus ta ill pekatua!*

ALZUGARAY “Uztaritzen”, 1860, *Mendi eder batean*.

AMESTOY Joxe, 1886, *Aphezak aurrari*.

ANXO Joseph, 1872, *A.M.D. maiteari*.

ARBELONDE Betiri, 1859, *Goazin edatera arno huntarik*.

ARRESE BEITIA Felipe, (Otxandio, 1841-1909): 1879, *Ama Euskeriari azken agurra*; 1880, *Bizi da ama euskera*; 1881, *Jaungoikoa eta fueroak*; 1883, *Jaungoikoana probidentzia*; 1891, *Biargin alegere bat*; 1896, *Euskaldun martire*.

ARRUPE Martin, “Darrupe”, “Harluch”: Urruina Harluxean sortua, 1823 an, 1857 an ezkondua Josefa Zelaietarekin, eta honekin hiru seme izanak (P.Andiazabal): 1854, *Beha dezagun ongi*; 1855, *Alde guzietarik berri txarrak*; *Begia ilun eta sabeletikan min*; 1856, *Alegera gaitetzen eta elgar lagun*; 1858, *Aditzea bera*; *Aberatsa zenbat den estimagarria*; 1859, *Eskaldunen laudorioak*; 1860, *Ontza urreari*; *Gizon abariziosa*; *Pena handi bat Eskal Herrian*; 1864, *Xoxo mokho beltza*, 1866, *Gizon gazte soldado zortean erorien animoa*; 1875, *Biba Eskal Herriak eta biba gurantzinekoak*; 1876, *Xorizaina*; 1877, *Xori kaiolatik ihes goan dena*; 1878, *Xori zaintzalia*; 1879, *Adios Amerikari*; 1887, *Haur kausitua*.

ARTOLA Ramon, (Tolosa, 1831- Donostia, 1906): 1879, *Altabizkarko kantua*; 1889, *Eguzkiyaren sarrera*.

ARTOLA Jose, (Donostia, 1864-1929): 1886, *Patxiku Pilart eta Juan Jose Palart*; 1887, *Erbinudea eta katua*; 1890, *Vanitas vanitatum*.

ARZAK Anton (Tolosa, 1831-Donostia, 1906): 1881, *Ilitzen bazaigu ama euskera euskaldunak ilak gera*; 1883, *Euskal-erriko perlak*.

AZKONZABAL: 1860, *Gaizki hurrenduko naiz, zerengatik?*

AZPANDARRA Martin, 1883, *Eskuara eta Eskual Herria*;

BALUYAN: 1858, *Oraiko neskatxen moduba*.

BARNEX "Atharratze", 1860, *Gerlaren has-aintzinekoak; Zunbat prinzipaletan eta baionetan gainen; Louis Napoleon famatia*.

BERDEKO Gustave, "Baxenabartarra": Behauze Berdekoenean mutil zahar bizi izan da XIX mendean, "Baxenarbatarra" izenordearekin Lore jokoetara igorri bertsoez bestalde, erdaraz ere bizpalau lan hauek ondu zituen Gustave Berdeko etxeko jaunak: "Histoire d'une cité basnavarraise, Garris...", Cièdes, Saint-Palais, 1892; "Coutumes morales au Pays Basque", *La Tradition Basque*, 1899, 167-179; "La inscripcion de Hasparren", EUZKADI, 1915, XII, 398-490. 1891, *Gernikako arbolaren laudoriotan*.

BERJES Joanes: 1806 irian sortua, ez ordea Saran, Sarako Agerrean maizter bizi izan zen bere emazte Katalin Subelzu Urruinarrarekin. Sei bat haur bazituzten. 1885 eko abenduaren 27an Agerrean hil zen senarra Agerrean eta 1904 ean Martin-harginarenean andrea. 1865, *Artzaingoa*; 1866, *Laboraria*; 1867, *Oraiko neskatxa batzu*; 1868, *Andre alferren eta zuhurren gainean*; 1871, *Gerla*; *Loreak eder dira*; 1872, *Bettiri Sants*.

BERON De: 1860, *Gazte eta hil behar*.

BORDA Bernard: 1854 eko abuztuaren 13 an Bastidatik Bernard Bordak igorri zituen bertso berezien egileari buruz P. Lafitten lanaz geroz ez dugu deus handirik aurkitu, bakarrik 1810 ean Hazparnen sortu zela "Borda" Jean izeneko haur bat. Hori bera ote zen 1828 an Bernard Borda deitu mutil gaztea, Hazparnetik Larresorora sartu zena, "Retorika" ikasturtea egiteko eta gero, berriz, 1854 ean, Bastidan agertu zena, nork jakin?

BORTHIRI Filipe, "Onizepekoa": 1855, *Mundia nola beitu ekhiak argitzen*.

CASAL Felipe: Donostiako *Euskal Fedea* antzeztaldekoa. 1890, *Gure euskara maita dezagun*; 1893, *Ama euskera eta bere umiak*.

CELHABE Bernard: Bardoztarra, nahiz ez dugun haren sor paperik Bardozen aurkitu. Apezgai izana zen eta 1850eko hamarkadan Dajas, Daguerre, Dussaut bardoztarrak bezala Bardozeke Hiribarren eta Gorostarsou apez pertsularien ingurunean bizi. 1853, *Entzunik espantutan Indien berria*.

CURET Baptiste, **Donibane Lohizuneko**: 1860, *Bizio baten gainean noha kantatzerat*; 1863, *Haur atzeman baten gainean*.

DAGUERRE Laurent: 1842 ko azaroaren 17an sortu zen, Bardoze Guillaumeenean, Mathieu Daguerre xokolategilearen eta Marie Sarandieten semea, Laurent Daguerre. 13 urte zituen 1855 ean. Haren izenean igorri bertsoek adierazten dute J.M. Hiribarren jaun erretoraren bereterra zitekeela. 1855, *Eman nahiz higuintza*.

DAGUERRE Saluat: 1856 eko paperetan anitz etxetan aurkitzen da Daguerre deitura Hazparneko herriko-etxean, "Xalbat"ik ordea ez. 1856, *Kanthore berri batzu*.

DAJAS Léon, Bardoztarra: 1839 ko apirilaren 19an Bardozen sortu zen Léon Joseph Dajas, François Pierre Dajas saleroslearen eta Marie Detchemendyren semea, Goran deitu etxe onean. Hau ere Hiribarren erretor bertsolariaren beretter izateko adin onean zen beraz, 1855 ean, Leon Dajasen izenean bertso berri zenbait bidali zirelarik lore jokoetara. 1855, *Emazte edaliak*.

DARRICART, Beaskoitzen: 1860, *Hetika*

DARRICARRERE Jean Baptiste: 1845 ean Uztaritzen sortua eta 1927 an Paris aldeko Saint-Denis hirian hila. Aduanetako kapitain izanik, lan asko egin zuen hiztegi gintzan, nahiz diru eskasez bere "Hiztegi heuskara" doi-doi argitaratzen hasi baizik ez zuen. 1869, *Lot Janari*.

DARRIGOL Jean, "Lahonce": 1826 eko maiatzaren 26 an Uztaritzen sortu zen, (menturaz Lehuntzako Jean Pierre Darrigol (1790-1829) apez euskaltzale jakintsunaren ilobetarik) Jean Darrigol "Lehuntzarra" sinatu zuen bertsolaria. 185lan Parisen apezturik, 1852an bikario zen Donapaleun, gero 1861ean erretor Behaskanen, 1864 ean Mugerren eta Milafrangan hil zen 1895ean. 1863, *Heskualdun gaztia soldado*.

DAVID Joseph, "Ezpeletarra": 1829 an Ezpeletan sortu zen eta 1910ean han berean hil, bere sorterrian mediku, zenbait aldiz auzapez eta beti mutil zahar egonik. Armand David (1826-1900) apez naturalista ezagunaren anaia zen Joseph David mediku bertsolaria. 1865, *Putxurdina*.

DIHARASARRI Laurent, "Baigurako artzaina", "Ortzaizeko erretora": 1842 an Saran sortua, Kanbon erretor zelarik 1890ean politika arazoengatik Ortzaizera bidalia, bere apezpikua Erroman auzitara jaukiturik eta garaiturik, gero 1893 ko hauteskundeak galdurik, tartetik artikulatu eta liburu zenbait euskaraz idatzirik, 1902an istripuz hila. 1894, *Sarako martira*; 1896, *Madalen Larralde*.

DORBE Benoît, 1815ean Urruinan sortu zen Benoît Dorbe okinaren eta Marie Lapitzen semea, eta sorterrian hil 1898 an. Anaia gehiena, Jakes (1804-1874) auzapez-lagun egona zen herrian. (P.Andiazabal). 1855, *Mundu hunetan hainitz emaztek edari maite dute*.

DUSSAUT Bardoztarra: Izen bereko anitz askazi baditugu Bardozoko herriko-etxean papere-tan, adibidez, Charles Dussaut, 1826an, Pierre D. eta Etiennette Pocheluren semea Etxeberrian, Etienne Dussaut, 1833 an, Jacques D. eta Gracie Dirassen semea, Ibarnegaraian, 1836 an, Jean Dussaut, Pierre D. eta Jeanne Celhaberen semea Etxeparean. Hauek oro labora-riak. Zein ote da Laboraria bertsotan goraiatzeko gai? Egia erran bertsoak berak irakurri ondo-an, Hiribarren jaun erretora bera izan zitekeela egilea, asma daiteke. 1854, *Laboraria*.

DUVOISIN Jean, "Oihancelhay", "Gazteluberri", "T. Elizalde Ainhoarra", "Larrondoherri": 1810 ean Ainhoan sortua Larresoron eskolatu ondoan aduanetako kapitain egonik, L.L.

Bonaparte printzearen gomendioz kargua utzirik, euskal lanetan higitu zen. Bera, bere anaia Cesar Duvoisin apezaz bezala Abbadiaren lankide hurbila izanagatik lore jokoetan parte hartzeraz menturatu zen hiruzpalau kanturekin bederen; 1891 an hil zen Ziburun. 1858, *Babiloniak uren bazterrean; Erramu eta haritz;* 1860, *Soldadogoatik Eskual herrirat;* 1864, *Stabat Mater;* 1878, *Artzaina eta bere gasnak.*

ELIZAGARAY Victor, “Cambo”: 1816 an sortu zen Hazparne Marandeiko zurginaren semea, Victor Eliçagaray, auzoko jaun misionesten kaperan entzun kantiken airean ondu bertsoak igorri zituen Lore jokoetara. Honen ondotik etorri ziren Jean Baptiste Elissagaray, Pierre Broussain-ekin “Hazparneko Elekrika konpainia” sortu zuena eta gero Mayi Elissagaray Bisents euskal idazlea (1894-1983). 1859, *Langilea.*

ELISSAMBURU Jean Baptiste: 1828 an sortua zen Saran, Larresoron eskolatua, 1849an armadan sartua, gero Françoise Eyherabururekin Urruinan ezkondua eta kapitain graduarekin erretiratua. Lore jokoetan askotan parteharturik sorterrian hil zen 1891an. 1858, *Tan tantan rataplan;* 1860, *Gazte hiltzerat doana;* 1862, *Apexa eta lorea, Nere etxea;* 1866, *Okhertuak bere okhertzaileari, Maria;* 1867, *Eskalduna;* 1871, *Xori berriketaria.*

ELISSAMBURU Léon: 1816 an Ortzainen sortua, aita bezala 1834 ean aduanetan sartua, pilotari ezaguna, bertsolari bikain agertzen da, Jean Baptiste anaia gaztea geroago bezala; Uztaritzen hil zen gazterik 1861 ean. 1855, *Emazte edalea;* 1856, *Bozkario handi bat;* 1858, *Rusiako Enperadorea;* *Ni ere baniagok entzunik berria;* *Gure andreak denak krenolin;* 1860, *Dantzaria;* *Ama dolorezkoa.*

ETCHAHUN Pierre “Topet”: 1786 an Barkoxen sortua eta sortetxean hila 1862 an, bertsolari handi ospearekin. 1853 ko lore jokoetan parte harturik eta saririk ez izanik, mendekiozko bertso zorrotzak atera zituen. 1853, *Montebideorat jauiliak.*

ETCHEVERRY Augustin: 1849 ko martxoaren 23 Sarako Zubietan sortua, Jeanne Marie Etcheverryren semea zen Augustin Etcheverry, eta osaba Agustin Etcheverryrekin ikasi zuen zapataintza. 1871 ko urriaren 11 an ezkondu zen Joséphine Laurenzena Senpertar ostalertsarekin, W. Webster euskalari angelesaren adiskide izan zen eta honen bitartez H. Schuchardt hizkuntzalari austriar ezagunaren euskal irakasle. Lore jokoetan askotan parte harturik 1890ean Lekaienean hil zen. 1866, *Anddere xakurra;* *Gizon gazte eskualduna;* *Pobria;* *Urguiluaz;* *Xirliska eta xinaurria;* 1868, *Haurra hobi hegian;* *Etxeko andrea;* 1869, *Hiltzera doan haur baten auhenak;* 1872, *Amaizuna;* 1874, *Kattalin xume;* 1878, *Larrungo mendia;* *Hartza eta kakamarloa;* 1885, *Maria alegiazkoa;* 1886, *Laboraria eta haren semeak.*

ETCHETO Jean “errient Senperen”: 1801 ean Itsasun sortu zen Jean Etcheto, 1858 an Senperen errient zelarik Lore jokoetan parte hartzen hasi eta, gure ustez, 1875 an gelditu zena. 1887 ko urriaren 14ean hil zen Senperen. 1858, *Bai behar dut mintzatu;* 1859, *Sortzez Eskualduna naiz;* *Enperadorea;* *Dantzaren sujeta;* *Izatu naiz Amikozen;* *Urak eta gure arnuak;* *Frantses gerlariak;* *Sebastopolgo gerla, Turra asto gainean;* 1860, *Haur ongi prestua;* *Errient naiz;* *Biarritze;* *Oi ene semea;* *Familia inperiala;* 1864, *Jaun andregaien arteko;* *Lillura;* *Munduko biltzarre jenerala;* *Ohore eta opulantzia;* *Gizon zaharra eta bere makhila;* *Ezkuntzeko hitza;* 1865, *Arrosaren kantua;* 1866, *Gizon gazte ezkondu nahia, Soldado ona;* 1868, *Neskatza pobrearen;* *Amoinaren gainean;* 1871, *Eliza xoria eta urzoa, Soldado mobila;* 1872, *Biligarroa.*

ETXEGARAI Bonifazio: (Zumaia, 1878 - Durango, 1956), abokatu eta historialaria. Gernikako epaile, eta Euskadiko Epaitegi Goreneko lehendakaria (1937): 1882, *Azuzenak*.

ETXEGARAI Karmelo: (Azpeitia, 1865 - Gernika, 1925), Gipuzkoako Diputazioan artxibero, eta euskaltzain oso (1923-25) izan zen. 1883, *Zertako; Euskerazko ipui jator berriak (I-X); Markinara*; 1886, *Menditar baten kantua; Abbadia jauna! zuri...;* 1888, *Txistulari gaisoa*.

EYHERABURU, T. 1835 eko abenduaren 12 an Urruina Hiriartean sortu zen Thomas Eyheraburu Piarres eta Kattalin Iribarrenen semea. Geroxago, 1842 ko ekainaren 18an, etxe berean aitama berek neskatxa bat izan zuten Françoise Eyheraburu, J.B. Elissambururekin ezkonduko zena. Eta horrela, Piarres Adame, Doyharzabal bezala, Eyheraburu ere izenordeztat hartuko du Elizanburuk. 1855, *Eskual Herrietan zonzait emazteki*.

EZKERRA Jose de Vera (Martin Jose MIKELAJAUREGIren ezizena): 1858, *Bein betan justizia eta egia*.

GARROko Armand jaun baroia: 1831 ean sortu zen Lekorne Garroko jauregian Victor Armand Urtubia eta Garroko Joakin-en semea. 1865ez geroz herriko auzapez egonik, ondokorik gabe zendu zen 1923 an. 1862, *Kriketa eta pobre*.

GOROSTARSOU Jean, "Harosteguy", "Duhalde": Ezpeletan sorturik 1829ko azaroaren 13 an, Larresoron eskolatu zen beste herritar asko bezala eta apeztu ondoan 1854 ean Bardozera joan bikario, J.M. Hiribarrenen ondora, hantik 1856an Donapaleora eta 1859 an berriz eskolatzera Erromara. Erromatik ere bertsoak igorri zituen Lore jokoetara eta gero Parise Grenelle-ko elizan egin zuen lan eta gazterik itzuli eri-handi, Senpere Azpeltzera, bere osaba izeben ondora. Hor zendu zen 1868 ko martxoaren 20 an, 38 urteetan. 1859, *Etxeko xokoa*; 1860, *Mendiak bete hedoiez*.

GUILBEAU Martin: Urruina Peixeeneberrian 1839 an sortu zen Martin Guilbeau frantses armadako marinelen eta Jeanne Doyarzabal Urruinarraren semea. Aita laster itsasoan galdurik, gobernuaren laguntzaz eskolatu zen mediku izateraino. 1869 an Donibane Lohizunen mediku jarri zen Larralde zenaren ordezkoko. Bestalde Donibane Lohizuneko auzapez ere izan zen (1878-1888) errepublikazaleen laguntzaz. Gaztedanik Lore jokoetan parte harturik, azkenean, "xurien" eta "gorrien" arteko zatiketak gaizkondurik, Abbadiaren besten aitzinean beste euskal besta batzuk antolatu zituen bere lagunekin, 1893-tik 1897 ra, Uztaritzen, Hazpamen, Ezpeletan, Kanbon eta Saran. Geroago Euskalzaileen Biltzarra 1902 an berak sortu eta berak ere utzirik, 1912 an hil zen Donibane Lohizunen. 1858, *Bihotz karlista baten auhenak*; 1859, *Eskaldun desterratua, Urzo gazte baten lehen hegaldia; Lagun baten berexkuntza; Marinelaren joan- etorriak*; 1863, *Nere maiterena, Adios nere maiteari*; 1872, *Einadak*.

HALSOUET Martin, "Ttipi Urruinakoa": 1793 an Urruina Antsobaitako etxetiar Etien Halsouet eta Joana Etxeberrik izan zuten seme bat, Martin Halsouet deitua. Hau Kattalin Chouriorekin ezkondu zen eta hiru seme alaba izan zituzten. 1855 eko abuztuaren 27 an hil zen Martin Halsouet, "Ttipi Urruinakoa" deitzen zuten bertsolari ezaguna, izurritearen ondo-

rioz. Ondotik hil zen haren alaba Mari Dominika, 7 hilabeteko alabarekin. 1852, *Napoleon, Monsieur d'Abbadie*; 1853, *Montebideoren aipu handiak*.

HARAMBOURE Arnaud “Ziburuko xantrea”: 1855, *Zer zorigaitza; Zenbeit hitz orai pertsutan ezarri*; 1856, *Huna nun tugun noizbeit bestako egunak*; 1858, *Makilari; Eskaldunen laudorioen gainean*; 1884, *Gizon buriophetsu eta sineste gabe baten bizia*; 1885, *Ume-xurtz erromes baten auhenak*.

HARDOY Bruno Urkuraikoa: 1856 ko paperetan, Hazparneko Herriko-etxean, agertzen da Bernard (ez Bruno) Hardoy negozialaria, Marie Deyheralderen senarra, 49 urte ditu eta Urkurai Zubiburuan sortua izan behar da 1807an. 1855, *Emazte edaleak*.

HIRIBARREN Jean Martín, “Gaztainalde”, “Heuty”, “Menditarra”, “Salataria”, “Hauzilaria”: 1810 ean Azkainen sortu zen Jean Martin Hiribarren, apeztu orduko, Urruinara joan zen Martin Goyhetche erretoraren lagun eta ondoko urtean Bardozera bikario lehenik eta 1839 an erretor. 1865 ean Baionara kalonje deitu zuten baina ondoko urtean hiri horretan istripuz hil zen. Euskaraz anitz idatzi zuen eta euskalzale anitzekin harremanak izan zituen. Euskal literaturan haren izena sartua da. 1855, *Eman nahiz higuintza; Emazte edaliak*; 1856, *Urte guziz eskaldunek; Errexinoleta kantari; Altxa mutil ederrak*; 1858, *Belzunzek Abarkari, Muños Baiona Espainiari saltzen; Makila*; 1859, *Herensugea*; 1860, *Petxe; Eugenia*; 1862, *Herriko biltzarra*; 1863, *Adiskide min baten*; 1864, *Ganetchiki ikazkina; Hauzilaria*.

IBARRART Piarres: Lapurdiko Jatsun 1838 an sortu zen Piarres Ibarret bertsolaria, gazterik xantre sartu Baigorriko elizan, sari asko irabazi Lore jokoetan eta adin ederrean hil Baionan 1919an. 1869, *Larrungo mendiari*; 1871, *Soldado ondoa*; 1872, *Gerlako presonier bat; Itsu bat*; 1875, *Kantari bat*; 1878, *Xinaurria eta xoria*; 1882, *Ikhaszin mendian*; 1884, *Uso saretan atzemaia*; 1885, *Mendigaineko Maria*; 1886, *Betiri Itsasukoa*; 1888, *Pilatus hiritarra*; 1890, *Bildots ait'amez gabetua*; 1892, *Itsua eta sastrea*; 1895, *Madalen Sarako martira*.

IPARRAGIRRE Jose Maria: (Urretxu, 1820 - Ezkio-ltxaso, 1881), olerkari eta kantari famatua batez ere bere *Gernikako Arbola* dela eta. 1876, *Nere herriko gazteari*; 1879, *Nafarroako alkarkidari*.

IRAOLA Biktoriano (Pasaia, 1841- Donostia, 1919), bertsolari eta antzerkigilea. 1881, *Lore igartua*; 1891, *Pedro Mari*; 1892, *Gaisuak!*.

IRIBARNEGARAY Jean “Xetre”: Lekuine Xetretetan sorturik 1831 an, Hazparne Tukutenbordarat etorri zen ezkontzaz, eta geroztik etxe hau ere Xetretetan deitzen da Hazparne Hazketako auzoan. 1856, *Anhitz phesta badugu*; 1871, *Galde onari prest*; 1894, *Madalen Larralde*.

LANDERRETICHE Saluat, “Garaztarra”: 1799an Donibane Garazin jaioa, apeztu orduko 1823an Baionako katedralean bikario, 1831an Saran erretor, 1837an Donapaleun, 1846 an Maulen, han hil zen 1855ean. 1853, *Nahi nuen kantatu*.

LAPHITZ Frantzisko: Arizkunen jaioa 1832 an, Larresoron eta Baionan eskolatuta apezturik, 1857 tik 1866 raino bikario egon zen Baigorriin, gero Atzaiko errektor zenbait hilabetez; Betharramitetan sartu zen 1867an eta Ameriketara joan. Han lan izigarria eginik Montevideo eta Buenos Airesetako Euskaldunen alde, 1905ean hil zen eta ospe handitan ehortzia izan. 1862, *Oderik, edo Aita Sainduaren soldadoa*.

LARRALDE Jean Baptiste, "Dr. Larralde": Hazparne Bordaxurian 1804 an sortu zen, Jean Baptiste Larralde, Bernard Larralde Bordaxuri (1771-1853) bertsolari ezagunaren eta Marie Dominique Etcheverryren semea eta beraz Martin Larralde Plumagaineko (1782-1821) hazpandar *galeriano* famatu beharraren kusi lehena. Medikuntza eskolak egin ondoan Donibane Lohizunen bete zuen bere ofizioa eta mutil zahar hil zen 1870 eko martxoaren 21 ean, 67 urte zituela, Lore jokoetan maiz sariztatua izanik. 1856, *Herriko besta*; 1858, *Eskualduna*; 1859, *Lo lo, ene maitea*; *Amatxi xahar batek*; *J.M. Ezkerra*; 1860, *Xori ohatzea*; *Gizon sobrea eta edalea*; *Itsasoa miriku*; 1862, *Bioleta*; 1863, *Xoriñoa kaiolan, Lana*; 1864, *Mutil zaharra*; *Ene sehia Gerexaniño*; 1865, *Eria ezagutzaz betea*.

LARROULET Paskot: 1809 ko ekainaren 22 an sortu zen eta 1884 eko otsailaren 10ean hil Urruñan, Batista Larroulet Paskoteneko nausia, zurgina zen eta hiru seme izan zituen (P.Andiazabal). 1859, *Heskualdunen beheiti lerratzea*.

LOPEZ ALEN Frantzisko: (Donostia, 1886 -1910), idazle eta pintorea. Donostiako Udal liburutegiko zuzendaria. 1888, *Habanara*, 1891, *Duvoisin jaunaren oroimengarriari*; *Maitexoren eriotza*; 1893, *Ama baten otsa seaskaren ondoan*; 1896, *Larralde-ko Madalenari oroitz bat*; 1897, *Oroitz bat Antoine d'Abbadieren obian*.

OLHAGARAY Jean, "Larresoarra": Bi Olhagaray aurkitu dizkigu Larresoroko udal-idazkariak XIX. mendean: Oihagaray Martin 1810 ean Intzabeherean sortua eta Olhagaray Joanes 1825ean Etxetobeherean sortua. Zein hauta? 1855, *Boza daut altxarazi ene herritarrak*.

OTAEGI Klaudio: (Zegama, 1836 - Hondarribi, 1890) olerkari, itzultzaile eta Hondarribiko maisua. 1881, *Elkar gaitezen denok napar-euskaldunok*; 1882, *Euskaldun baten arrenkurak*; 1883, *Markinako euskal- pestai diosala*.; 1889, *Amerikatik*.

OTAÑO Pedro Mari: (Zizurkil, 1857 - Santa Fe, Argentina, 1910) olerkari, eta antzerkigile. 1895, *Larraldeko Madalena*.

OXALDE Joanes: 1814ean Bidarrain sortu zen eta sorterrian hil eta ehortzi 1897an, Jan Batista Oxalde. Guarda eta postari ere izanik, Ameriketara ibilirik eta, lore joko ala tobera bestetan maiz parte harturik bertsolari fama handia bildu zuen Euskal Herrietan XIX mendean. 1851, *Kantu berriak Urruñeko pilota partidaren sujeten gainean*; 1852, *Biba Luis Napoleon!*; 1859, *Italiako gerla*; *Tratu eder bat*; 1868, *Enperatrizari*; 1878, *Khilo-egilearen kantuak*; 1880, *Beranteko urrikiak*; 1883, *Burdinbidea*; 1890, *Lurreko ene bizia*; *Etchahun barkoxtarrak eta Oxalde bidarraitarrak elgar errekontratu zirenean eman zituzten kantuak*; 1894, *Madalen Larralde*.

OXANDABARATZ Joanes: Itsasuko udal idazkariaren arabera Oxandabaratx asko aurkitzen dugu Herriko paperetan. XIX. mendean 1810 ean: Joanes Oxandabaratx bat sortu da

Salaberrian eta 1827 an beste bat Martisantsenean. Zuk hor hauta! Gainera, mende beraren hondarrean, Goytino Kanboarraren *Kaliforniako Eskual-Herria* astekariak maiz agertzen du, bertsotan ala prosan, Kadet Oxandabaratz itsasuarren sinadura. 1860, *Iragan denborena*.

SAUBABER Jean: 1831 an Lapurdiko Getarin sortua, 1856an apezturik Senperen egon zen bikario, 1857an bikario Uztaritzen; 1862 an Donamartirin erretor, 1872 arte, eta 1890ean sorterrian hil zen. 1859, *Ume eskergabea*; *Solferinoko bataila*.

SOUHY Adrien de: 1846 an, Mauleko hirian, Abbadia sendiarekin askazi zen familian, sortu zen Adrien de Souhy; bere amak eta berak ere gutunak eta ikerlanak kurutzatu zituzten, Abbadiaren paperek erakusten dutenez. Adrien bere sorterrian familiatu zen, sorterriko auzapez luzaz egon eta hil artino Mauleko kantonamenduko kontseilari jeneral, nahiz 99 urteetan hil zen 1945ean. 1890, *Hunki jin musde Abbadia*; 1892, *Ziberuak Laphurdiri*.

URANGA Juan Ignazio: (Errenteria, 1863 - Donostia, 1934), olerkari eta antzerkigile. 1891, *Ipui berriak*.

Piarres Xarriton & Patri Urkizu